

## / Nabarmentzekoak

- > Udal informazio eta kudeaketarako 010 telefono zerbitzuaren hobekuntza (2. or.)
- > Maribel Salas, Gemma Martínez eta Sol Magunak antzeztuko dute "Desfasando, que es gerundio" (3. or.)
- > Saioa Agirre, Espainiako senior txapelduna taldeka (4. or.)

\* Tokiko ostalaritzaren posizionamendua hobetzeko aholkularitza-zerbitzua (4. or.)



**Teatro.** Hilak 30, ostirala, 19:00etan, Muxikebarrin, "Ez dok ero", Tartean Teatrorerkin. Euskaraz. 12€.

**A-  
GENDA**

**XXIII San Inazio kontzertua.** Hilak 30, ostirala, 20:15ean, San Inazio parrokiaren José Antonio Urdiain tenorearen eta Pedro Guallar organo-jotzailearen eskutik.

## Lau proiektu, dinamizazio ekonomikorako laguntzen 2. lerroko onuradunak

Begihandi Kultur Elkarte, Asociación Cultural Audiovisual Klip Elkarte, Karraskan eta Serifalaris erakundeek lau proiektuak dira Udalak ematen dituen 2. lerroko laguntzen onuradunak. *Getxo Ekinez 2021* programaren barruko laguntza horiei bideratutakoa 45.000€ dira, eta Getxoko eremu estrategikoetan profesionalen elkarteei eta enpresaburuei zuzendutako dinamizazio ekonomikorako jarduerak egitera bideratuta daude, hain zuzen ere, enpresa ekimen berritzaileak ongizatearen, bizitza osasungarriaren eta kirolaren alorrean eta industria sortzaile eta kulturalen alorrean; eta gure udalerrira turismoaren alorrean kokatzea sektore horiei lotutako segmentuetan.

### Caleidoscopio proiektua

**Erakundea:** Begihandi Kultur Elkarte. Kultura-kudeaketa eta -sorkuntza

**Diru-laguntza:** 12.800€

**Hasiera:** uztaila.

**Helburua:** Argazkigintza garaikideari buruzko prestakuntza-programa (online), arlo horretan praktika artistikoa profesionalizatu nahi duten gazteentzat, hainbat arlotik lan egiteko tresnatzat hartuta, besteak beste, aipatutako praktika ar-

tistikoa, ikerketa, artxibatzea, edizioa, argitalpena, teoria, idazketa... Programak 5 hilabeteko iraupena du, nazioarteko mailako irakaslerekin. Topaketak eta tailerrak artistekin eta Masterclass izenekoak.

### GetxoExpressPRO proiektua

**Erakundea:** Asociación Cultural Audiovisual Klip Elkarte.

**Diru-laguntza:** 8.905€

**Data:** urriak 20 eta 21

**Helburua:** Ikus-entzunezko sektoreko profesionalentzat, industria-rako ekitaldi espezifikoak, GetxoExpress film laburren lehiaketaren barruan. Sektoreko profesionalen emandako prestakuntza eta networking teknika erabiliz, Pitching izenekoak prestatzea eta ikus-entzunezko proiektuak aurkeztea, gidoigintzako eta zuzendaritzako hainbat masterclass eta networking ikus-entzunezko sektoreko profesionalentzat eta enpresentzat.

### VII. Berrikuntza eta Kultura Jardunaldia 2021

**Erakundea:** Karraskan. Elkarte profesionala, Euskadin kulturaren berrikuntza eta berrikuntzaren kultura sustatzeko.

**Diru-laguntza:** 8.294,30€

**Data:** Irailak 28 eta 29

**Helburua:** Euskadiko kultura-sarea eta sormen-sarea indartzen dituzten gune bat sustatzea, zeinean KSIn eremuan gai interesgarriak buruzko hausnarketa bultzatzen den. Garapen jasangarriko Ekonomia Sortzailea, edo Ekonomia Laranja ere deritzona, ardatz duen jardunaldia (online eta aurrez aurre). Barne hartzen ditu hainbat jarduera, ideiak kultura-ondasun eta -zerbitzu bihurtzea ahalbidetzen dituztenak, balio ekonomikoak eta bestelakoa sortzeko gai direnak.

### Getxo Tutore Dotore proiektua

**Erakundea:** Serifalaris. Euskadin diseinu grafikoa sustatzeko elkarte

**Diru-laguntza:** 15.000 €

**Hasiera:** Urriak 1

**Helburua:** Ezagutza hedatuko programa da, eta hurrengo ideian oinarritzen da: beste profesional batzuen praktikatik eta aurretiko esperientziatik ikasteak profesionali aurrera egiten laguntzea, arrakasta-berme handiagoekin. Programa bi talderi zuzenduta dago: estudioarekin 5 urtetik gorako esperientzia duten diseinu grafikoko profesionali eta lehen urratsak ematen ari diren diseinatzaile berriei, estudioa abiarazi berri duten edo egin nahi dutenei.



*Getxok beste urtebetez itxaron beharko du jaiak bere formatu tradizionalen ospatzeko. Covid-19aren azken datuak eta espazio publikoetan edukiera mugatzeari lotutako osasun publikoko irizpideak ebaluatu ostean hartu dugu erabaki hori.*

*Positiboen kopurua gora egiten ari da, eta ez dirudi joera hori aldatuko denik uda-garaian. Asko baloratu dugu, eta uste dugu erabaki hori zentzuzkoena eta zuzurra dela, argi baitugu osasuna funtsezkoa dela eta birusa eta haren aldaera berriak geldiarazteko beharrezko neurriak betetzen jarraitu behar dugula.*

*Udala eta udalerriko auzoetako jai-batzordeak elkarlanean aritu gara jaiak eta Paellen Nazioarteko Lehiaketa antolatu ez daitezten. Beraz, aurten, ez da ospakizunik izango. Mesedez, getxoztar guztien lankidetzara behar dugu. Elkarte, erakunde, gazte eta adineko guztiena. Pirlaketak ekidin eta muxukoa erabili.*

*Uztailean, abuztuan eta irailan, gozatzeko beste ekitaldi batzuk izango dira Getxon. Eta, jakina, beste aukera batzuk lantzen jarraituko dugu, alaitasuna, umore ona eta dibertsioa gure kaleetara eta bizitzetara itzultzea lortzeko.*

**Amaia Agirre,  
Getxoko alkatea**

## Aixerrotako paellen beste edizio birtual bat

COVID-19agatik bizi dugun egoeraren ondorioz, Paellen Nazioarteko LXVI. Lehiaketa streaming bidez izango da, iaz bezala. Ekitaldiak 12:00etatik aurrera jarraitu ahal izango dira #Paellen2021 hashtag-arekin eta Itxas Argia-ren hurrengo sare sozialen bidez: Instagram@itxasargia-getxo eta Facebook ITXAS ARGIA. Parte hartzeko argazki bat bidali behar da whatsapp bidez (tel.: 640 506 223) paella aurtengo zapiarekin (salgai Algortako saltokietan) eta koadrilarekin (bere izenarekin). Sariak denda laguntzaileetan aza-



Amezti bat, iazko kuadrilla irabazlea

roaren 30a baino lehen gastatzeko bonoak izango dira eta azken orduan emango dira ezagutzera gizarie sareetan: Hiru zozketa bidez izango dira (200, 150 eta 100€), laugarrena "like" gehien duenarentzat

(100€) eta beste bat orijinalenarentzat (100€).

Egitaraua: ITXAS ARGIAren Facebooken dago. Ekitaldiak biltzen ditu, batzuk grabatuak eta beste batzuk zuzenean, ikuslerik gabe.





**Ingurumen Aretoa.** 10:30-12:00 eta 12:00-13:30. Ziribirika: inguruko tximeletak ezagutzeko jarduera autogidatua (6 urtetik gora). [www.ingurumenaretoagetxo.eus](http://www.ingurumenaretoagetxo.eus)

#### UZTAILAK 22 OSTEGUNA

**Erakusketa.** Algortako Batzoki Tabernan, Carmen Caraviasen akuarelak. Irailaren erdialdera arte, 8:00etatik 24:00etara.

#### UZTAILAK 24 LARUNBATA

**Antzerkia.** Muxikebarrin (Ereaga aretoan), 19:00etan, "Desfasando, que es gerundio", Lalulu Teatrotrekin. Sarrera: 12€.

**Ingurumen Aretoa.** 10:30-11:45 eta 12:15-13:30. Txiki tailerra: egin ezazu zure izurde eta bale panpinak, Izurdeen eta Baleen Munduko Eguna ospatzeko (6 urtetik gora). [www.ingurumenaretoagetxo.eus](http://www.ingurumenaretoagetxo.eus)

#### UZTAILAK 25 IGANDEA

**LXVI Nazioarteko Paela Lehiaketa.** Streaming bidez #Paela2021 traolaren eta Itxas Argiaren sare sozialen bitartez: Instagram @itxasargiagetxo eta Facebook ITXAS ARGIA. 12:00etatik aurrera. Algortako komertzioan eta tabernetan pañeluak salmentan daude. Egunaren azken orduan, sari-banaketa streaming bidez.

#### UZTAILAK 26 ASTELEHENA

**Erakusketa.** Romo Kultur Etxeko erakustaretoan, "Entre comas" (pinturak), Alex Martín Caseyren eskutik. Abuztuaren 13ra arte.

#### UZTAILAK 29 OSTEGUNA

**Teatro.** Muxikebarrin (Ereaga aretoan), 19:00etan, "Yo, Mussolini", Leo Bassiren eskutik. Sarrera: 12€.

#### UZTAILAK 30 OSTIRALA

**Teatro.** Muxikebarrin (Ereaga aretoan), 19:00etan, "Ez dokero", Tartean Teatrotrekin. Sarrera: 12€.

**XXIII San Inazio kontzertua.** 20:15ean, San Inazio parrokiaren José Antonio Urdiain tenorearen eta Pedro Guallar organo-jotzailearen eskutik.

#### UZTAILAK 31 LARUNBATA

**Ingurumen Aretoa.** 10:30-13:30. Bolueko esploratzaileak: ekin-tza autogidatua. 10:30-12:00 eta 12:00-13:30. "Haritz eta bere lagunak". Ginkana, ezagutu itzazu Arboretumeko zuhaitzak [www.ingurumenaretoagetxo.eus](http://www.ingurumenaretoagetxo.eus)



- **Adinekoak zaintzen ditut.** Tel.: 660 20 58 42 (Espe).

- **Haurrak zaintzen ditut.** Euskara. Tel.: 660 20 58 42 (Leire).

- **Ingelesa.** Irakasleak eskolak ematen ditu udan. Eskarmentu handia. Tel.: 687 00 06 50. Romo.

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukien egiazko-tasunaren erantzule izango.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

**STAFF**  
Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizi-tzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.  
Komunikazioko zinegotzia: Ainhoa Galduroz  
Zuzendaria: Javier García.  
Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.  
Erredakzioa: Nekane Ardanza.

Monika Rodrigo, Iñigo Olondo.  
Urgull kalea z.g., 4. Tel.: 94 466 03 20. 48991 Getxo.  
e-posta: [getxokoudalaprentsa@getxo.eus](mailto:getxokoudalaprentsa@getxo.eus)  
Arte arduradunak: Bostnan Bilbao, S.L.  
Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U.  
Banaketa: Lantegi Batuak Fundazioaren egunOn zerbitzua  
Gordailu legala: BI-388-87

## Udal informazio eta kudeaketarako 010 telefono zerbitzuaren hobekuntza

Udalak udal informazio eta kudeaketarako telefono zerbitzu berria jarri du martxan, funtzionalitate berriak gehituz eta ordutegia zabalduz. Hemendik aurrera, 08:00etatik 19:00etara emango da arreta etengabe (orain arte, 08:00etatik 14:00etara). Harremanetarako zenbakia 010 da, Getxotik deituz gero, eta 94 466 00, udalerritik kanpo deituz gero. Informazioa [010@getxo.eus](mailto:010@getxo.eus) helbide elektronikoan ere eska daiteke. Janire Ocio Modernizazio eta Gobernu Irekiaren arloko zinegotziak adierazi duenez, "zerbitzua hobetzearen helburua da getxotarrei bizitza errazagoa egitea eta ahal den neurrian joan-etorriak saihestea".

010 zerbitzu berriaren bidez, informazioa eskatzeaz, hainbat zerbitzutarako hitzorduak kudeatzeaz eta errolda-agiriak izapide-tzeaz gain, hemendik aurrera, pixkanaka, beste izapide eta kudeaketa batzuk egin



ahal izango dira, hala nola: ziurtagiriak lortzea; ordainagiriaren kopiak; ordainagiriak eta erroldan agertzen den helbidera bidaltzea (posta arruntez edo posta elektronikoz) 24 orduko epean, eta inprimakiak edo dokumentu digitalak etxera bidaltzea; zergadunen egoitza fiskalak aldatzea; udal izapide jakin batzuk egiteko eta udal sailtako teknikariek biltzeko aurretiko hitzordua kudeatzea eta/edo aldatzea; eskabideak, bizikidetzaz-ziurtagiriak jasotzea, eta abar. Aipatu

bezala, izapidetze-zerbitzu horiek pixkanaka jarriko dira martxan.

Zerbitzu berria zabaltzeko eta sustatzeko, Udalak, 010 telefonoaren bidez, 400 inkesta egingo ditu telefonoz, eta herritarrei galde-tuko die "zein izapide edo kudeaketa egin nahiko luketen kanal horren bidez" eta "ea beste iruzkin edo iradokizunen bat egin nahi duten". Inkesten emaitzak ikusita, proposamenak zerbitzuan sartzeko aukera baloratuko da.

## Zurumurrurik Ez Estrategiaren mapeo parte hartzailearen lehen faseak harreman sareak indartu ditu

Kulturen arteko bizikidetzak baketsua sustatzen jarraitzea, komunitatetik abiatuta, eta elkarrekintzako eta elkar ezagutzeko sareak indartzea izan dira 2021eko lehen sei hilabetekoan Udalaren Zurumurrurik Ez Estrategiak egindako mapeo parte hartzailearen lehen fasearen helburuak. Mapeo tresna bat izan da sarea zabaltzeko eta mugimenduekin eta kolektiboekin lankidetzaz-aliantzak sortzeko, atzeritar jatorriko auzotarrei buruz dauden zurumurrurik, aurreiritzi eta estereotipo negatiboak desagite aldera. "Parte hartu duten pertsonen, entitateen eta kolektiboekin beren zere-

gina eskertu nahi diegu eta, aldi berean, ekimen hauekin bat egite-  
ra animatu nahi ditugu herritar guztiak, udalerrian bizikidetzaz eta aniztasunaren alde lan egitea delako helburu", nabarmendu du Carmen Díazek, Gizarte Kohesioko zinegotziak. Bizipen-tailerrak egin dira ikastetxeetan, esate baterako, Europa Ikastetxean, Romo ikastetxe publikoan eta Aixerrota institutuan. Bestalde, GAR, Zurumurrurik aurkako gazteen sareak bere lanarekin jarraitzen du, Aisibizia entitateak lagunduta Gaztelekue-tan. Era berean, lankidetzaz-  
loturak ezarri dira erakunde eta kolektiboekin ere, hala nola

Getxoko Etorriaren Federazioa eta Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformekin, Mujeres con Voz, Egizu eta Moviéndote Getxo elkarteekin, eta Harribide Fundazioarekin. Azkenik, ekainean egindako Zurumurrurik Aurkako Urteko II. Topaketa, sormena eta berrikuntza oinarri hartuta, ideiak eta proposamenak partekatze-  
ko aukera bat izan da.

Udaren ostean, berriz ere jarriko dira harremanetan ikastetxeekin eta erakundeekin, eta hainbat ekintza egingo dira zinema eta liburutegietan, Pertsona Migratzaileen Nazioarteko Egunari buruzko programazioaren inguruan.

## Kaishop! kanpainak euskaraz erostea sustatu du

Herrian euskaraz erostea eta Euskararen Laguna Salto-kien sarea sustatzera lagundu du Kaishop, erosi euskaraz, erosi Getxon, azken asteotan hainbat jardueraren bidez Udalak burututako kanpainak. Hain zuzen ere, kanpainan, sareko dendatan euskaraz eskatu dutenen artean 2.200 poltsa banatu dituzte, Gimkana digitala 480 lagunek bisitatu dute, Gimkana presentzian 33



pertsonak hartu dute parte eta 23 gaztek Tik Tok bideo lehiaketan. Jardueretan izandako partaideen artean 100€-ko bederatzi sari gatzatzeko eta lau opari sorta banatu dira. "Kanpainarekin euskara-

ren erabilera indartzeko beste urrats bat eman nahi izan dugu eta uste dugu hori lortu dugula, herritarren partaidetzak eta gizarte sareetan izan den mugimenduak erakusten dutenez, besteak beste, Facebooken eta Instagramen kanpainaren bidez 16.000 lagunetatik gora jaso dutelako, ia 13.000 erre-  
produktzio izan dira eta Gimkanak 14.700 iriste lortu baititu", azaldu du Irantzu Uriarte, Euskara zinegotziak



# Maribel Salasek, Gemma Martinezek eta Sol Magunak antzeztuko dute “Desfasando, que es gerundio”

Maribel Salas, Gemma Martínez eta Sol Maguna aktore ezagunak Muxikebarrin izango dira larunbatean, uztailak 24, 19:00etan, *Desfasando, que es gerundio* lana antzezteko. Proiektu hau LALULU TEATRO taldearena da, Kultur Etxeak 2020ko azaroan Programazio Artistikorako abian jarritako Diru-laguntzen Deialdiaren barruan hautatutako 12 ekimenetako bat. Saio hori kultur esparruan pandemiak eragindako ondorioak murrizteko den *Getxo Ekinez 2021* programaren barrukoa da.

Itxialdian “normaltasun berria”-ren ziurgabetasunari argia emateko sortuta, ikuskizunak galdera ugari egiten ditu, hain zuzen ere, eguneroko bizitzaren galderak umore sketch formatuan.

Antzezpenerako sarreraren prezioa 12€-koa da.



## “Yo, Mussolini” lana Muxikebarrin, Leo Basiren eskutik

Datorren ostegunean, uztailak 29, *Yo, Mussolini* izenburuko lana ikusi ahal izango da Muxikebarrin. Ereaga aretoan, Leo Basiren eskutik. Antzezpena 19:00etan hasiko da eta sarreraren prezioa 12€-koa izango da.

Aktoreak berak dio oso lan boro-bila dela, eta ikus-entzuleak sakon sentiaraztea lortzen duela. “*Agian punturik garrantzitsuena da erakustea Botereak nola sortu zuen faxismoa iri-*



*tzi publikoa manipulatzeko eta horretarako beldurra arma gisa erabili zuela. Uniforme militarretatik, iraina hizkuntza gisa, ezjakintasuna goraiatzea edo indarkeria fisikoaren mehatxua, ezer ez da zoriaren emaitza: atean beldurtzeko estrategia bat dago, menderatzeko sortua”, adierazi du.*

Lanaren txostenaren arabera, *Yo, Mussolini* lanak txistea eta probokazio erraza nahasten ditu “*manipulazio politikoari buruzko hausnarketa*

*sakonarekin, arte bufoneskoaren esentzia erakusten duen ariketa artistikoarekin. Lan probokatzailerik eta dibertigarria da, baikortasuna sortzeko eta antzerkitik ateratzen den publikoari intolerantziari adimenez aurre egiteko gogoia emateko pentsatua”. Azkenean, faxismoaren aurkako antidotorik onena barrea eta pentsamendu positiboa dira. Izan ere, beldurra sortzeko gaitasunik gabe, totalitarismoa ezerezean geratzen da.*



### Antonio Menchacari omenaldia bere mendeurrena dela eta

Antonio Menchaca Fundazioaren Patronatuak omenaldia egin zion Antonio Menchaca Careagari uztailaren 15ean jaio zeneko mendeurrenean. Bere liburuen artean *Las cenizas del Esplendor* obra nagusia nabarmentzen da, Bilboko, Neguriko eta inguruko gizartearen erretratua, industrializaziotik XX. mendearen amaierara arte. 1921eko uztailaren 15ean, Getxon jaiotako idazle, marinel eta filantropoak 1974an Antonio Menchaca Fundazioa sortu zuen, bere aita Antonio Menchaca de la Bodega enpresariaren omenez, Bizkaian behartsuenei elkartasuna eta babesa emateko lan handia egin zuena. Antonio Menchacak berak jarraitu zuen lan horretan, eta orain bere alabak, María Menchacak. Fundazioak 500 erakunde baino gehiagori eman die diru-laguntza, eta duela 20 urtetik hona, urteko Elkartasun Sariak banatzen ditu. Ekitaldia Plentzian izan zen, bertan lurperatuta baitago.



### Sei gazte getxotarrek hartu dute parte EuskarAbenturan

Euskara erabiltzea eta gazte euskaldunen sarea osatzea sustatzen, Euskal Herriko hainbat toki zeharkatu duen EuskarAbenturaren hirugarren edizioako lehenengo txandan (uztailaren 1etik 11ra) Romo institutoko Alaitz Epalza, Ainara Beitia eta Naroa Sanzek, eta Julio Caro Baroja institutuko Izaro Rozasek eta Unax Martinezek hartu dute parte, eta bigarrenean (uztailaren 16tik 25era) San Nikolas ikastolako Naia Ortunek, hainbat begirale getxotarrarekin batera. Entitate eta erakunde batzuen laguntzarekin, tartean Getxoko Udalarena, EuskarAbentura elkarteak antolatutako gazte espedizioak Euskal Herriko eta diasporako zazpi lurraldeetako 16 eta 17 urte bitarteko 120 adingabe eraman ditu euskal geografia, kultura eta historia ezagutzera, hainbat txango, mintegi eta jardueraren bidez. Oraingoan, osasun egoera dela eta, kanpaldi formatuan egin da ekimena.



## Tokiko ostalaritzaren posizionamendua hobetzeko aholkularitza-zerbitzua

Ekonomia Sustapenaren arloko Turismo Unitateak aholkularitza indibidualizatu eta espezializatuko zerbitzuari atxikitzen beste epe bat ireki du, tokiko ostalaritzaren posizionamendua hobetzeko. Helburua da establezimendu horiek (ostalaritza, gozotegiak, delikatessen merkataritza...) eta enogastronomiaren inguruan diharduten enpresak Euskadi Gastronomika produktu-klubean sartzea erraztea. Horretarako, *Getxo Ekinez* planeko 8.000€ inbertituko dira.

Gaur egun, zerbitzu horren bidez, udalerriko 42 establezimenduri ematen zaie estaldura: aurreko edizioetan atxiki ziren 31 establezimenduri (kudeaketa eta zerbitzuak hobeto emateko lanean jarrai dezaten), eta klub horretan sartzeko interesa erakutsi duten beste 11 berriri.

Establezimendu bakoitzera bisita indibidualizatuak egiten ari dira, haien ezaugarriak eta eskatutako bikaintasun-baldintzen betetze-maila ezagutzeko. Jarraian, haien egoerari buruzko doako diagnostikoa egiten da, eta hobekuntza-ekintzen plan bat proposatzen da, bikaintasun-klub horretan sartzeko gutxienezko baldintzak lortzen laguntzeko eta beren zerbitzuak



eta posizionamendua hobetzeko jardunbide egokien eta ekintzen kodeak ezartzeko.

Honako hauek dira klubean sartuko diren establezimendu berriak: Asador Borda, Barrukoa, El rincón de Palomero, Iratxo, Fangaloka Style, La Barmuteka, La Oka, Mahaiko, Mundo de cervezas, Palacio San Joseren eta Txinuk.

**Euskadi Gastronomika**  
Produktuen bikaintasuna eta gure

sukaldarien lan ona Euskadiren bereizgarriak dira. Gastronomía ulertzeko modu hori indartzeko sortu zen Euskadi Gastronomika, Euskadiko Turismo Enogastronomikoko produktu-kluba, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailburuordetza buru duen sektorea bultzatzeko planaren barruan. Egun, 720 jatetxe, taberna, denda eta beste establezimendu gastronomiko batzuek osatzen dute sarea, eta ezarritako exigentzia- eta konpromiso-irizpideak betetzen dituzte.

Horiek guztiek marka izan dezakete eta egindako sustapen- eta hedapen-jardueren eta ekimenen onurak jaso ditzakete, besteak beste:

- Euskadi Gastronomika Klubean saritutako Getxoko establezimenduen zerrenda: <https://www.getxo.eus/eu/turismo/descubre-getxo/gastronomia>
- Euskadi Gastronomika Klubari buruz: <https://www.getxo.eus/eu/getxolan/noticias/561>

## KIROLAK



### Saioa Agirre, Espainiako senior txapelduna taldeka

Maddi Otaolarekin bikotea osatzen zuen Saioa Agirre gimnasta getxotarrak (argazkian ezkerrean) urrezko domina lortu du zintarekin eta zilarrezkoa pilotarekin, Valentzian jokatuako Espainiako taldekako txapelketetan. Bere bi ariketetan lortutako puntuen batuketak, Otaola bere lagunak arearekin lortutako zilarrearekin batera, taldekako senior urrea irabaztea eragin zuen. Titulu horrek Leioako Sakoneta gimnasia erritmiko Taldeari estatuko erritmikoko taldekako lehen mailara igotzeko aukera eman dio. Agirrek arrakasta handiko kirol ibilbidea du. Inoiz ez bezala egin zuen irribarre Agirrek zinta ariketa handi baten ondoren, baina irribarreak nostalgiazko malkoei bide eman zien tapizetatik berehalako erretiratzeagatik.

Getxo eta Coruñaren artean jokatzeko ari den lehiaketarekin

## Abian da Maeloeko Itsas estropada-Xacobeo Saria 21/22

Getxo eta Coruñaren arteko Maeloeko Itsas Estropadak, 250 miliakoa, asteazkenean ireki zuen Abran oso lehiaketa berezia, R.S.C. Itsas Klubak eta Baionako Real Club de Yates mendiak, Santander Itsas Klubaren eta Coruñako Errege Klub Nautikoaren laguntzarekin, lau rogeita hamarrek hamarkadan hori saiatu ondoren. Baina hiru unetan bakarrik antolatu zen. Helburua izan zen iparraldeko estropada nagusiak lotura handi batekin elkartzea. Nautika osoaren borondatea ideia kristalizatzeko uhinean zegoen. Horrela, ia bi hamarkada programatu gabe egon ondoren, proiektua Mar de Maeloc-en barruan sartu zen eta dagoeneko errealitate bat da.

Euskal Autonomia Erkidego-ko, Kantabriako, Asturiasko eta

Galiziako 15 estropada-ontzik hartuko dute parte lehiaketa honetan, hilaren 24ra arte. EAEko hurrengoak izango dira lehiaketa: Alfonso Churrucaren *Alpega*, Gonzalo Chavarriren *Uso Vuela*, Antonio Tenaren *Portu*, Guillermo Martinen *Begonia maitea*, edota Abrako Itsas Klubeko Ricardo Paschen *Chicharro*, Orzaren *Marmotinha*, Donostiako Santiago Orlandoren *Krill* eta Zumaiako Josu Portularrumeren *Andrax Bi*.

Lehen lehiaketa horren ondoren, aurreikusita daude Mar de Maeloc Regata Rías Altas (A Coruña-Laxe-Muxía-Malpica-A Coruña), uztailearen 29tik abuztuaren 1era; Mar de Maeloc Finisterre Trofeo (A Coruña-Vigo), abuztuaren 6tik 8ra, eta Mar de Maeloc Rías Baixas (Vigo-Combarro-A Pobra-Vigo), abuztuaren 10etik 14ra.